

**Mikhail Bulgakov**

**Mediku baten  
oroitzapenak**

**euskaratzailea: Begoña Lasa**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Begoña Lasa.

Euskarazko edizioa: Baroja, 1988

Jatorrizkoaren data: 1925

Mikhail Bulgakov euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=248>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1305>

# Oilar bat brodaturik zeukan toalla

Urrutien dauden landako bideetatik barrena bidaia egitea zer den ez dakienak, nekez ulertuko du kontakizuna; hala ere, ez luke ulertu ere egingo. Kontua zertan datzan dakienari dagokionean, ez daukat oroitarazteko gogorik.

Zera esango nuke bakarrik: Mourievo erietxetik Gratxovka distrito-burura dauden berrogei kilometroak nire gurtzainak eta biok hogeita lau ordutan juxtu-juxtu egin genituela. Zera esango nuke ere harritzeko zehaztasun batez: 1917ko irailaren 16an, eguerdiko ordu bietan, miresgarria den Gratxovka hiri honen irteeran pasa genuen azkeneko estalgunea, eta ahaztezinezko 17. urte honetantxe, irailaren 2an ordu biak eta bost minutuetan aurkitzen nintzen ni Mourievoko erietxearen patioan, zapalduko, zimelduriko, iraileko zirimiriak bustiriko belarrean zutik. Eta hara zer nolakoa zen nire egoera: hankak gogortu egin zitzaizkidan, eta hauxe, hementxe, patio honetantxe nire eskuliburuari erarik nahasga-

rrienean begiradatxo bat botatzeraino, saiatzen nintzen, lanarekin baino, gogoratzen ea ba ote zegoen benetan gaixoaldian giharrak gogortzen zaizkizuneko gaitzen bat, edota bart amestu egin ote nuen Gravidovka herrian. Zein du gaixotasun madarikatu honek latinezko izena? Nire gihar bakoitzak jasanezinezko oinazea ematen zidan, hagineta mina izaten denaren antzera. Oinetako behatzek, zertarako hizketan hasi, dagoeneko ez zeukaten mugitzerik botetan, egur puxkak bezalaxe paralizaturik zeudela. Onartu beharra daukat baretasuneko uneetan madarikatu izan ditudala betidanik isilean medikuntza eta unibertsitateko erretoreari zuzendutia sarrerako eskakizuna. Eta denbora honetan, zerua gabe batetik barrena bezalaxe jaisten zen. Berokia esponja bat bezalaxe puztu zitzaidan. Nire eskuineko eskuko behatzak alferrik ari ziren maletaren kiderrari eusteko ahaleginetan, eta azkenean, arraioa, txistua bota nuen belar bustiaren gainean. Nire behatzek ezin zioten ezeri eutsi, eta berriz ere, hain jantzia nola nengoen medikuntzako nire liburukote ederretan jasotako ezagupen guzti haiekin, berriz ere pen-

tsatu nuen gaitz honexetaz, paralisiaz. Paralisiaz, pentsatu nuen, itxaropena galdua, auskalo zergatik.

— Z... Zuen bideetan, hasi nintzaien, nire egurrezko ezpainak, erabat urdinduak berriz ere mugituz, bidaiak egi... egiten ohitua egon behar duzu.

Eta hau esanda, nork daki zergatik, begirada gaizto bat zuzendu nion gurtzainari, nahiz eta berak ez izan bideen egoerarekin zer-ikusirik.

— Zera, bai... sendagile lagun hori, erantzun zuen gurtzainak, bere bibote txikiaren argipean ezpainak nekez mugitzen zituelarik, badira hamabost urte honelako bidaiak egiten ditudala, eta ez naiz ohitzen sekulan.

Dardarizoa izan nuen, pisu bakarreko pabiloi baten horma zuri urratuei begirada triste bat bota nien, erizainaren etxeari, kareztatu gabeko hormak zituena, nire etorkizuneko bizi-lekuari alegia, pisu bakarreko etxea, txukuna oso, hilerriak bezalakoxeko leiho misteriotsuetakoa, sakonki hartu nuen bada arnasa. Orduan, latinezko hitzen tokian, nire baitan, gozotasunez beteriko esaldi bat ilunki agertu zitzaidan, izter

urdin lodiko tenore lodikote batek kroskekin eta hotzarekin ahunaturiko nire garunean abesten ari zitzaidan.

«... Agur zuri... egoi-tza... sagara-tua...»

Adio, adio denbora luzerako, Bolxoi antzoki, urrezko eta kolore gorrikoa, Mosku, bitrinak... zoritxarrez, adio.

«Ardi-larru bat jantziko dut hurrengoan... pentsatu nuen etsiak jota, gogortutako nire eskuekin maletaren uhalei tiraka, ni neu... eta hurrengoan berau urrian izango denez... bi ardi-larru ere jantzi ahal izango ditut. Ez bainaiz Graxovkara hilabete barru baino lehenago joango... egin kontu ... bidean lo egin behar izan dugu ere! Hogei kilometro eta gero, ilunpe beltzetan murgilduta aurkitu ginen... gauean... Grabilovkan lo egin beharra izan genuen... maisuak etxean hartu gintuen... Eta gaur goizean, zazpietan abiatu gara... eta iritsi gara bai... Alajainkoa! ... oinez baino mantsoago. Gurpil bat zulo batean sartzen zaigu, bestea altxa egiten da, maleta nire oinetan, binbili-banbala, gero alde batera

erortzen naiz eta gero bestera, sudurra aurrera gero, geroxeago garondoa. Eta ilundu egiten da zerua, gehiago ere ilundu, eta hezurak jelatu egiten zaizkigu. Sinets ahal nezakeen irail goi atsegin bete-betean, izotza bota zezakeenik landan, negurik gogorrean bezalaxe? Ba bai, hara! litekeena da. Eta pixkanaka-pixkanaka hiltzen zarenean, gauza bakar eta bera besterik ez da ikusten, zera: eskubitara, konkorturiko zelai bat, kezkatuak erabat, ezkerretara baso txiki kaxkar bat alboetan bost edo sei etxe arrez zaharkituak dituela. Badirudi ez dela katurik ere bizi. Isiltasuna, isiltasuna bazterretan...»

Eman egin zuen azkenean maleta. Gurtzainak sabela bertan jarri eta bete-betean bota zidan gainera. Uhaletik eutsi nahi izan nuen, baina nire eskuak heltzeari utzi zion eta nire bidai-lagun lodikote eta guzti honengatik nekaturia belarretara erori zen zuzen-zuzenean, nire liburu eta katramailu guztiekin, nire oinekin estropezu egiten zuela.

— Ene, Jaink..., hasi zitzaidan gurtzaina kaka larritan.

Baina nik ez nuen imintziorik ere egiten: oinak, apropos neuzkan zakar-ontzirako.

— Ie! Jainkoa lagun! Aditu, gurtzainak oihuka besoak mugituz, oilar batek hegoak astintzen dituen eran. Aditu, sendagilea dakart!

Orduan, erizainaren etxetxoaren leihoetako iluntasunean, aurpegiak agertu ziren eta leihoe-tan itsatsi. Kirrika egin zuen ate batek, eta nik belarrean errenka zihoala ikusi nuen gizon bat zulaturiko beroki eta boten tankerako batzuekin.

Bazter-bazterrean jarri zitzaidan, eta azkar asko altxa zuen txanoa errespetuz, irribarrea egin zidan, ez dakit zergatik, kezkatuta bezala eta marrantaturiko isilpeko ahots batez agurtu ninduen honela:

— Egunon, sendagile-lagun hori.

— Nor zaitut? galdetu nion.

— Egorytx nauzu, aurkeztu zuen bere burua, erietxeko zaintzailea. Zainduko zaitugu, badaki-zu...

Berehala heldu zion nire maletari, bizkarrean hartu eta eraman zuen. Kojoka jarraitu nintzaion, nire praketako patriketan portamoneda hartzeko



eskua sartzen alperrik ahaleginak egiten nituelarik.

Gizonak, egia esateko, gutxirekin aski du. Ezer baino lehenago su eder bat da behar duena. Zoko galdu bat den Mourievorako bidean, bururatu zitzaidan ere, gizon errespetagarri batek bezalaxe jokatuko nuela. Nire gazte itxurak eman nituen lehendabiziko urratsetatik mingosten zidan bizitza.

Bakoitzaren aurrean nire burua aurkeztu behar izaten nuen:

— Untel sendagilea.

Eta denek, beharturik bekain bat altxatzen zuten eta zera galdetu:

Posible al da? Nik oraindik ere ikaslea zinela uste nuen!

— Ez, bukatu dut, erantzuten nien nik, ilunkiro, nire buruarekiko zera pentsatzen nuelarik: «Betaurrekoak erabiltzen hasi beharra daukat, horixe da egin behar dudana».

Baina nik ez nuen betaurrekoak erosteko inolako beharrik, oso begi onak neuzkan, eta euren zorroztasunak ez zuen oraindik jasan bizitzako esperientziaren iraina. Atsegintasun zabalez

beteriko etengabe egiten zizkidaten irribarreez betaurrekoekin defenda ez nintekeenez, jokaera berezia eramaten ahalegintzen nintzen, errespetua eragingo zuen ustetan. Tamaina eta mentuz hitz egiten saiatzen nintzen, uko egiten nien ahal nuen neurrian mugimendu zakarrak egiteari, korri egiteari, unibertsitatea utzi berri duen hogeita hiru urteetako edonork egiten duen bezala, oinez ibiliaz. Gaur egun urte asko eta gero ikusten dudanez, gauzak ez zitzaizkidan ondo joan.

Egun hartan, nire barneko jokaera-kodea hautsi nuen. Eserita nengoen, kuzkurtuta, oinetakorik gabe eserita, ez nire gelan, sukaldean baizik, eta su-gurtzaile baten moduan eseri nintzen liluratuta, inspirazioz eta pasioz, suan distirutzen zuten urki-enborrei begira. Nire ezkerretara, ipurdiz gora jarritako upeltxo bat zegoen, eta bertan zeuden nire zapatak jarrita; hauen bazterrean larruturik, lumaturik eta lepoa odoletan zeukan oilar bat; eta oilarretik hurbil haren mila koloreko lumak pilatuta. Ikusten duzue bada, nola nahiz eta gizendu, bizitzak eskatzen dituen zenbait eginkizun-sortari uko egin niela.

Egorytxen emaztea zen Aksiniari, sudur fin eta zorrotzekoa bera, sendagilearen sukaldari bezala aritzeko agindu nion. Hona hemen zergatik hil zen oilarra haren eskuetan. Oilar hura, neuk jan beharra neukan. Jende guztia ezagutzera iritsi nintzen. Erizainak, Demian Loukitx zuen izena, Pelagie Ivanovna eta Anna Nikolalevna emaginek. Erietxea bisitatu nuen eta argi eta garbi ikusi nuen jantzia zegoela oso aparailuei zego kienean. Horretaz gainera, betidanik argitasun horrekin berarekin, nahiko lan izan nuen onartzen, nigan noski, inola ere ez nekiela zertarako balio zuten berriak ziruditen aparailu haietako askok. Ez bakarrik eskuartean ez nituela sekulan eduki, baizik eta, halaxe da bai, inoiz ez nituela ikusi ere egin.

— Kontxo!, marruskatu nuen luzaz, nolabait esateko, aparailu onak dauzkazue oso. Ño!

— Halaxe da, jauna, azpimarratu zuen Demian Loukitxek... ahots xume batez. Leopold Leopoldovitx zeure aurrekoaren ahaleginei esker izan da. Bera, goizetik arratsera aritzen zen eba ketak egiten.

Izerdi hotzak gainezkutzen ninduela sentitu nuen eta beirazko armairutxo distiratsuei begiratu nien tristuraz.

Ondoren gela hutsen bisitaldia egin nuen, ziur nago hauek berrogei bat lagunei egingo lioketela harrera.

— Leopold Leopoldovitxen garaian, izaten ziren sarritan berrogeita hamar lagun ere, esan zidan Demian Loukitxek atsegin har nezan.

Anna Nikolaiovnak, ile urdinduak koroian jarrita zeuzkan emakumeak zera esan zidan, ez dakit nik zergatik:

— Sendagile hori, gaztea ematen duzu oso, hain gaztea... harritzekoa benetan. Ikasle bat dirudizu.

«Horratx bizarra!» pentsatu nuen, ados daude denak, ene!

Eta hortz artean marruskatuz zera bota nuen zorrozki:

— Bada... ez, ni... egia esateko ni... hala da bai... gaztea oso...

Botikara jaitsi ginen ondoren, lehen begiztapen baten ondotik berehalaxe ohartu nintzen ez zela haririk ere falta. Bi gela ilun samar hauetan

belar-usain gogorra zegoen eta apaletan baze-  
goen denetik. Bazeuden kanpotik ekarritako sen-  
dabide patentatuak ere, eta ez dago esan beha-  
rrik ere, nik neuk aipatzen ere entzun ez nitue-  
nak.

— Leopold Leopoldovitxek aginduak dira,  
adierazi zidan prestuki Pelagie Ivanovnak.

«Miresgarria benetan Leopold hori» pentsatu  
nuen, Mourievo baketsua utzi zuen Leopold mis-  
teriotsu harengan errespetua sentitzen nuelarik.

Su eder batez gainera, gizonak, nonbaitera  
moldatzeko beharra ere sentitzen du. Oilarra,  
denbora asko da jan nuela, lastaira, Egorytxek  
berriz ere bete eta oihal batez estali egin zidan,  
lanpara bat zen nire bizi-lekuko gelan argia ema-  
ten zuena. Eserita nengoen eta liluraturik bezala  
begiratzen nion ametsezko Leopolden hiruga-  
rren ezaugarriari: armairua liburuez gainezka  
zegoen. Bakar-bakarrik kirurgiazko esku-libu-  
ruean artean, errusieraz eta alemaneraz, lehen  
begiratu batean hogeita hamar bat ale zenbatu  
nituen. Eta terapeutika erantsi behar horri! Eta  
dermatologiazko atlas zoragarriak!

Arratsaldea erortzen ari zen eta ni ohitura hartzen ari nintzen.

«Ez dut ezertarako balio, pentsatzen nuen seta mingarri batez, badaukat diploma, hamabost bider atera dut hamarra. Eta konturatu nintzen nire hiri handi hartatik aldegin nahi nuela bigarren mailako mediku bezala aritzekotan. Ez alajaina. Irribarre egiten zuten eta zera esaten haiek: «Ohitura hartuko duzu». Hor zaude hor, orain, ohituko zara harekin. Eta etenen bat ekartzan badidate? Esan, nola moldatuko naiz? Eta batez ere nola sentituko da hura, gaixoa, nire eskuetan etena eta guzti? Beste munduan ohituko da (hozkirri bat sentitzen dut bizkarrezurrean zehar)...

«Eta apendizitis zornatsu bat? Esan! Eta baserriko haurren *croup* dipterikoa? Trakeotomia bat egin behar izaten zaienean? Halere, trakeotomiarik gabe ere, ez nintzateke oso pozik sentituko... Zera... Zera... zera oheratzearena! Oheratzearena ahaztua neukan! Agerpen distozikoak. Zer egingo dut bada? Esan! Bai babalorea naizela! Alor hori baztertu beharko nuke.

Hona hemen zer den egin behar dena. Gustura aurkituko lukete beste Leopoldoren bat!».

Ilunabarrean, triste-triste nindoan nire bulegotik barrena bueltatxo bat ematera. Lanpara aldera hurbiltzen nintzela, beronen islada distiratsua nabaritu nuen leihoan eta nire aurpegi zurbila agertzen zen alboetan, landen etengabeko iluntasunean.

«Dimitri Faltsua dirudit», pentsatzen nuen sarritan, tontoaren moduan, eta mahaian eseri nintzen berriro.

Bakardadean neure buruari nahigabea ematen aritu nintzaion bi ordu inguruan, nerbioek asmatzen nituen izualdiei gehiago eutsi ezin zieten arte. Lasaitzen hasi nintzen orduan eta zenbait asmo taxutzen ere.

Tira... Une honetan ez dago haien iritziz kontsulta eskaera handiegirik. Herrietan, lihoa brodatu ohi da, bideak txarrak dira... «Orduan da hain zuzen ere, etenen bat eramango zaituztenean, bota zidan lazki ahots batek garunean, zeren bideak egoera txarrean daudenean, erreuma (gaixotasun xumea hauxe) daukan pertsonarik ez zaizu etorriko, aldiz etenen bat, zaude,

arrastaka bada ere ekarriko dute honaino, sendagile lagun hori».

Ez zen tuntuna ahotsa, ezta? Bota nuen dardarka.

«Isildu zaitez, esan nion ahotsari, ez derrigorrez etenen bat, Nerbio ahulezia bai ordea! Indartsutzat bere burua daukanak eutsi behar dio heltzen zaionari».

«Isuria denean ardoa, edan beharra dago», erantzun zuen ahotsak mingarriki.

Ederki ... farmakopea izango dut beti nirekin... Zerbait agindu behar bada, pentsa daiteke hartaz ederki aski, eskuak garbitu artean. Kodi-zea zabalik izango da beti, gaixoen erregistroaren gainean. Nik neuk zuzenduko ditut beharrezkoak diren aginduak, baina agindu arruntak, hori bai. Hartzazue esate baterako, 0,5eko hautsetako sodio salizilatoa egunean hiru bider...

«Sodio bikarbonatoa ere agin daiteke!» erantzun zidan nire barneko hizketa-lagunak, argi eta garbi iseka egiten ari zitzaidala.

Eta zer dela-eta sosa-bikarbonatoa? Ipekuana infusioan ere aginduko dut... 1, 80gr. Edota 2gr. Nahi duzun bezala.



Lanparatik hurbil nire bakardadean, inork ipekakuanarik eskatu ez bazidan ere, berehala hasten nintzen, ahultasunagatik, ziurtatzeko farmakopea begiratzen. Eta begiratzen ari nintzela, ustekabean irakurri nuen bazela «intsipina» delako bat. «Azido kinidiglikolaren sulfatoa» besterik ez zen... Eta ohartzen zara ez duela kininaren zaporerik! Baina zertarako balio du delako intsipina honek? Eta noiz agindu? Hautsa al da? Joan dadila pikutara!

«Intsipina izan ala ez izan, zer egin behar duzu zeure etenarekin?» ekiten zion setatsu ahotsaren atzean estaltzen zen beldurrak.

«Bainu batean ipiniko dut gaixoa, erantzun nuen nik defendatzearren, amorrazioz beteta, horixe da, bainu batean. Eta saiatzen ahalegin-duko naiz».

«Itotako eten bat, aingerutxo hori! Ezer pintatzen al dute bainuek horrelakoetan? Itotakoa! aldarrikatzen zuen beldurrak, deabruzko ahots batez, egin behar dena irekitzea da...»

Eta hartan, amore eman nuen, la negarrez. Iluntasunari erregutu nion orduan, leihotik urru-

tira: zuk nahi duzun guztia, baina itotako etenik ez.

Eta zera abestu zuen nekeak:

«Oheratu zaitez, zorigaiztoko eskulapio hori. Ederki egingo duzu lo, eta argituko du bihar egunak. Lasai, neurasteniko gazte hori iBegira! Kanpoan iluntasuna atsedenean dago, izozturiko zelaiak lotan, ez dago etenaren itzal izpirik. Eta argituko du bihar egunak. Moldatuko zara... egin lo... utzi zeure atlasa... hala eta guztiz ere une honetantxe ez duzu ezertxo ere ulertuko. Etenaren estugunea...»

Ez nintzen konturatu ere egin nola sartu zen nire etxean. Gogoratzen naiz ateko sarrailak zart egin zuela, Aksiniak zertxobait oihukatu zuela. Eta gero, gurdi batek kanpoan kirrinkatu zuen.

Burusoila, botoirik gabeko ardi-larru motza zeramala, kizkurturiko bizartxoa, erobegiduna.

Aitaren egin zuen, gero belauniko jarri eta kopetarekin jo zuen lurra.

Eta dena niregatik.

«Nireak egin du», pentsatu nuen tristuraz.

— Ez bada, ez, zertan ari zara? marruskatu nuen, eta bere arre koloreko besotik heldu nion.

Haren aurpegiak keinu egin zuen eta, hizto-  
telka bezala moxtutako erantzun hauxe bota  
zuen marmarka:

— Sendagile jauna... Jauna... Bakarra,... zeu  
zaitut bakarra... zeu bakarra! oihukatzen zuen  
sarritan gizon gazte baten ahots ozenaz, hain  
ozen ezen lanpararen pantailak dardara egiten  
zuela. Ene, Nagusi hori... ene...

Bere nahigabeen eskuak igurtzi zituen eta  
berriro hasi zen kopetarekin lurra jotzen, hautsi  
nahi balu bezala.

— Zer dela-eta? Zer dela-eta halako zigorrik?  
... Zer egin diot ene Jaungoikoari?

— Nola? Zer da gertatu dena? oihukatu nuen,  
aurpegia izozten zitzaidala sumatzen nuelarik.

Kolpez zutitu zen, bere burua astindu eta  
zera marruskatu zuen:

— Sendagile jauna... nahi duzun bezala, dirua  
emango dizut... har ezazu nahi duzun adina. Lau-  
buruak ekarriko dizkizugu... Bera hiltzen ez den  
bitartean. Bera hiltzen ez den bitartean. Elbarria  
geratzea ere, ez dago gaizki. Ez dago gaizki!  
oihukatu zuen berak sabaiari begira, badugu  
mantentzeko nahikoa, aski nahikoa! Aksiniaren

aurpegi zurbila atearen karratu beltzean nabarmentzen zen. Nahigabeak estali zuen nire bihotza.

— Nola baina?... Nor da hor? Bota! oihu egin nuen etsipenez.

Marmar batean isildu eta ezkutuan bezala zera esan zidan begietan barneragaitzeko sakontasunaz:

— Gramak harrapatu dio...

— Gramak?... Gramak? Galdetu nuen berriro. Zer da hori?

— Lihoa, lihoa brodatzen aritzen dira... Sendagile jauna... argitu zidan Aksiniak, ondoko grama hauxe... lihoa brodatzeko erabiltzen da.

«Hasi da. Hasi da bai. Ene, zergatik etorri ote naiz?» pentsatu nuen beldurak akabatzen.

— Nor?

— Nire alaba, erantzun zuen marmarka, garrasika hasi zen gero: Egin ezazue zer edo zer!

Eta berriz ere belauniko jarri zen, eta borobiblean moztutako haren ileak begien aurretik pasa zitzaizkion.

Haren sabelduriko pantailapean, hojalatazkoa, «tximist»-lanpara sutan zegoen adar antze-

ko bi margotuz, berotasuna zeriolarik. Ebakuntza-mahaiaren ganean, berri usaia zeukan argiztaturiko oihalaren ganean ikusi nuen, eta etena oroimenean itsatsi zitzaidan.

Haren ile argiak, gorrixka samarrak, mahaitik erortzen ziren, bola nahastu eta lehor bat osatzen zutelarik. Trentza ikaragarri bat zeraman, muturrarekin lurra ukitzen zuena.

Zartaturiko haren kotoizko gonaren marrazkien ganean odolak ondoko kolore desberdinak hartzen zituen: zikindura gorrilun bat, koipe zikindura bat, zikindura gorrimin bat. «Tximist»-lanpara argitasuna laranja kolorekoa iruditu zitzaidan, bizia, haren aurpegia berriz zuria, lardaskatutako paperezkoa bezala, eta sudurra nabarmena.

Haren aurpegi zurian, itzali egiten zen, mugitu ere egin gabe, igeltsuzkoa balitz bezala, edertasun bitxienetariko bat. Ez da betidanik aurkitzen, ez da sarritan era halako aurpegirik.

Ebakuntza-aretoan erabateko isilunea sortu zen hamar minutuz, alabaina, itxitako ateen atzean norbait entzuten zen ahots gor batez

oihuka, eta joka, buruarekin joka ari zela oraindik.

«Erotu egin da, pentsatu nuen, eta erizainek zera eman beharko diote... Zer dela-eta halako edertasuna? Aurpegikera ederra dauka, bai halaxe da, baina... Ama ederra izango zuen... Ederra da bera...»

— Ederra al da? marruskatu nuen ustekabean.

— Bai, erantzun zuen leunkirol Pelagie Ivanovnak.

Hala, keinu zakar batez, gaizkileen moduan Demian Loukitxek neskatoaren gona zartatu zuen goitik behera, eta kolpez nexka bilutsik aurkitu zen. Begirada bat bota nion: ikusten nuenak itxaron nezakeena gainezkatzen zuen. Ez zuen, nolabait esateko, ezkerreko hankarik. Zanpaturiko haren belaunetik aurrera ez zen zatituriko orbain odoltsu bat besterik, gihar gorri txikituak karraskaturik zeuden, eta hezur zuriek, txiki-txiki eginak, alde guztietatik zituzten muturrak. Eskuineko hanka zango aztalaren parean zegoen hautsia, bi hezur muturrek larrua zartatu zuten, kanpora ateratzen zirelarik. Hanka bere hartan

zegoen, atzekoz aurrera, gainerako gorputzarekin zer-ikusirik ez balu bezala.

— Alajaina... esan zuen leunkiro erizainak; eta ez zion ezer gehiagorik erantsi.

Nire kezkaaldetik atera nintzen orduan eta pultsua hartzen hasi nintzaion. Haren izozturiko eskuan ez nuen ezertxo ere sumatzen. Segundo batzuk geroxeago sentsazio berezi bat sentitu nuen, juxtu-juxtu igartzen zena. Desagertu egin zen... Gero, geldiene bat izan zen eta izan nuen astirik haren ezpain zuriei eta urdintzen ari ziren sudur-hegalei begiratu bat botatzeko... Zera adierazi nahi nuen jadanik: nereak egin du... Zorionez, atzera egin nuen. Uhin bat pasa zen berriz, hari baten moduan.

«Hona hemen nola itzaltzen den zatitutako pertsona bat, pentsatu nuen, ez dago ezer egite-rik...»

Orduan, Anna Nikolaievna, makurtuz, zeta marruskatu zidan belarrira.

— Zertarako sendagile jauna? Ez sufriarazi. Zertarako beste xiringadarik. Une batetik bestera utziko gaitu-eta... ez duzu zuk salbatuko.

Begirada ilun eta gaizto bat zuzendu nion hari:

— Alkanforra mesedez...

Halako tonuaz, Anna Nikolaievna aurpegia gorritu egin zitzaion iraina zela-eta-berehala zuzendu zen mantar-mahaitxora eta anpulu bat puskatu zuen.

Erizaina bera ere ez zen nonbait alkanforrarekin konforme. Hala ere bera izan zen trebetasunez eta arinki xiringa jarri ziona, eta hala laranja kolorezko olio zabaldu zitzaion bizkarreko larrutik barrena.

«Hil zaitez. Hil zaitez azkar, pentsatu nuen, hil zaitez. Gainerakoan, zer egin nezake zurekin?»

— Berehala hilko da, marruskatu zuen erizainak, pentsamendua igarri izan balit bezala.

Begiak okertu zituen maindire aldera, itxuraz alabaina, iritziz aldatu baitzuen: penagarria izango litzateke odolez zikintzea. Baina segundo batzuk geroxeago estali egin behar izan zuten. Hilotza zirudien arren ez zegoen hilda. Bat-batean, dena argi ikusi nuen gure antzinako anfiteatroaren beirazko sabaiaren azpian bezalaxe.



— Alkanfor gehiago, bota nuen nik ahots marrantatsuaz.

Eta berriz ere erizainak menekoiki olioeko xiringa bat prestatu zuen.

«Posible izango al da bera benetan ez hiltzea? pentsatu nuen, nire onetik aterata, beharrezkoa izango al da...»

Argi eta garbi ikusi nuen dena eta kolpez, inongo esku-liburu, ez kontseilu ez laguntzarik gabe konturatu nintzen (konturatu izanaren segurantzaz agerian zegoen) orduantxe bertan, nire bizitzan lehendabizikoz, ebaketa bat egin behar niola hiltzeko zorian zen izaki bati. Eta izaki hori bisturipean hil egingo zen. Ene, bisturipean hil egingo zen bera. Ez zaio odolirik geratuko! Hamar kilometroetan zehar isuriko zitzaion bera hanka puskatutik, eta une honetan ere ez dakit ezer sentituko ote duen, entzungo ote duen. Ez baitu ezertxo ere esaten. Ene, zergatik ez da bada hiltzen? esango dit aitak, adorea galdua baitago.

— Presta ezazue ebaketa, esan nion erizainak nire ahotsaren antza izpirik ere ez zuen ahotsaz.

Emaginak harrituta begiratu ninduen, baina erizainaren begiek onespenezko keinu bat egin zuten, eta tresnez arduratu zen gero. Eskulabea hartuta, zurrungaka hasi zitzaion...

Ordu laurden bat pasa zen. Betazal hotza sineskeriazko izuarekin altxatzen nuela dagoneko itzalia zen begia aztertu nuen. Ezin dut ulertu. Nola iraun dezake oraindik ere bizirik gorputz erdiarekin? Nire txano zuritik iheska, izerdiantak irristatzen zitzaizkidan kopetatik barrena etengabe; Pelagie Ivanovnak izerdura gazi hori gasarekin garbitzen zuen. Une hartantxe, gelditzen zitzaion odolaz gainera kafeina zerien ere neskatzaren zainei. Injekziorik jarri behar al zitzaion? Anna Nikolaievnak poliki-poliki pasa zion eskua izterretatik, soluketa fisiologikoa zela medio handituriko konkoretatik barrena. Eta neskatzak bizirik jarraitzen zuen.

Bisturia hartu nuen, norbaiten antzera egiteko ahaleginetan... (Bizitzan ebaketa bakar batean izana nintzen, unibertsitatean hain zuzen ere). Une hartan patuan jarri nuen itxaropena ez zedin hurrengo ordu erdian hil... «Gelan hil dadila, nik operazioa bukatua daukadanerako...»

Nire zuhurtzia neukan lagun, erne baitzegoen honen berezitasuna zela-eta. Zaildutako harakin baten trebetasunaz egin nion izterrean ebaki borobil bat ederki aski zorrozitutako labainaz. Eta azalak eman egin zuen, odol pixar bat ere isuri gabe. «Odolodiak hasiko al dira odoletan, zer egingo dut nik orduan?» pentsatu nuen hemostasi matxarda pilen aldera begiak keinu gaizto batez okertuz. Emakume-haragi puska handi bat ebaki nuen, odolodietako bat ere (hodi zurixka baten itxura zuen), baina odol tanta bakar bat ere ez zen atera. Hemostasi pintza batekin itxi eta ebakitzen jarraitu nuen. Matxardak sartzen nituen odolodiak izango zirela uste nuen toki guztietan... «Arteria... arteria ... Zein du hark izena, odol ona al du? Ebakuntza aretoak nire anfiteatroaren antza hartu zuen. Hemostasi matxardak grapekin zeuden zintzilikatuta. Izterrari eusten beti, gasarekin gora begira mantentzen zirelarik. Hezur borobil bat hasi nintzen ebakitzen hortz txikiko zerra distiratsu batez. «Zergatik ez ote da bada hiltzen?... Benetan harrigarria... Ene, bai latza duela gizonak bizitza!»

Eta hezurra puskatu egin zen. Neska gazte baten hanka izan zena Demian Loukitxen eskue-tan geratu zen. Haragi-puskak, hezurrak! Guzti hau atzera utzi eta neska gaztea hirutik batean bilduta bezala aurkitzen zen, alde batera botea zuelarik izterrondoa. «Eutsi, eutsi gehixeago... ez hil, pentsatzen nuen irrikaz, eutsi gelaraino bada ere, utzidazu nire bizitzako gertakari izugarri honetatik aldegiten».

Berehala egin zitzaizkion elkardurak, ondoren nire termokauterioaren trinketeez baliatuta hasi nintzaion azala josten puntu batetik bestera tarteak utziz... Baina gertu egin nintzen, bat-bateko burutazio bat, zera egin... Tarte bat utzia neukan... Gasazko tapoia ipini nuen... Izerdurak begiak itsutzen zizkidan eta estufa batean nengoela iruditzen zitzaidan...

Idi batek bezalaxe botatzen nuen haizea. Luzaz geratu nintzen begira izter puskatu hari, aurpegi koipetsu hari. Zera galdetu nuen:

— Bizirik al dago?

— Bizirik dago, erantzun zidaten erizainak eta Anna Nikolaievna batera, oihartzun itogarri bat bailiran.

Igartzen ez zela ia, ezpainak mugituz bakar bakarrik, zera esan zidan erizainak belarrira:

— Oso gutxi geratzen zaio.

Isil-Isilik geratu zen ondoren eta zera kontseilatatu zidan begiramenez:

— Hobe izango litzateke agian bigarren hanka ez ukitzea, sendagile hori. Bilduko dugu guk gasarekin... Ez baita gelaraino iritsiko bestela... Konforme? Hobe da ez ebakuntza aretoan hiltzea.

— Emaidazue igeltsua, ihardetsi nuen ziztuka bezala, indar ezezagun batek eraginda bezala.

Zurienez gainezka zegoen zorua, gu izerdi patsetan. Neskak, erdi-hilik, bizigabea zirudien. Eskubiko hankan igeltsua jarrita zuen, eta hausketaren tokian ikus zitekeen irekitako belaunaren gainean sutsuki egin nion ebakia.

— Bizirik dago, esan zuen erizainak, erabat harrিতa ahots marrantatsuaz.

Altxatzeko ahaleginak egin genituen. Oihalaren gainean izugarrizko hutsunea egin zen; haren gorputzaren hirutik bat ebakuntza-mahaian geratu baitzen.

Itzalak mugitu ziren ondoren pasilotik barrena, erizainak alde batetik bestera zebiltzan korrika, garrasi zakar bat bota zuen gizon baten irudia ikusten nuen horman albaintzen. Urrutiratu arazi zuten hala ere. Isiltasuna nagusitu zen.

Ebakuntza aretoan ari nintzen ukalondoetarraino odolez zikindurik neuzkan besoak garbitzen.

— Mozketa asko egin al zenituen, jauna? galdetu zuen bat-batean Anna Nikolaievna, ederki aski egin duzu... Leopold berak bezain ederki...

Haren ahotik «Leopold» hitza «Doyen» hitza izango balitz bezala irteten zen.

Ikuspasada bat bota men azpitik aurpegiei. Begirada guztietan, bai Demian Loukitxenean eta bai Pelagie Ivanovnanean ere, errespetua eta harridura sumatu nituen.

— Zera... neuk, jakin ezazue bitan bakarrik egin dudala...

Zer dela-eta halako ziria sartu? Une honetanxe ezin dut ulertu.

Dena geratu zen isilik ospitalean, erabat isilik.

— Neska hiltzen denean, etor zaitezte nire bila, agindu nion ahopetik erizainari.

Eta ez dakit zergatik baina, «konforme» erantzun beharrean zera erantzun zidan errespetuz:

— Zure aginduetara sendagile jauna.

Minutu batzuk geroxeago medikuaren apartamentuko kontsultan aurkitzen nintzen lanpara berdetik hurbil. Isilik zegoen etxea.

Nire aurpegia isladatzen zen zurbildurik baldosen beltz bortitzean.

«Ez, nik ez dut Dimitri Iruzurgilearen antzik eta gainera, agian zertxobait zahartuko nintzen... Harako sudur gaineko zimur hau... Atea joko dute... Zera esango dute: «Hilda dago...» Joan egingo naiz orduan eta azkenekoz begiratu-ko diot... Halaxe da, atea joko dute...»

Atea jo zuten. Bi hilabete beranduago izan zen. Kanpoan, neguko lehenengo egunetako bat ikusten zer argitzen.

Hura sartu egin zen; orduantxe izan zen arre-ta handixeagoz begiratu nion unea. Halaxe da bai, aurpegikera ederra du. Berrogeita bost bat urtekoa. Begiek ñir-ñir egiten diote.

Gero soineko baten zaratatxoa gero... Bi makulutan saltoka, hanka bakarreko neska gaztea sartu zen, ertzapaindura gorria zuen ederra baino ederragoa zen gona luze batekin.

Begiratu ninduen eta haren masailek arrosa kolorea hartu zuten.

— Moskun... Moskun... (Helbidea idazten hasi nintzen bada) Han protesi bat egingo diote, gezurrezko hanka bat ipiniko.

— Luzaiozu eskua, esan zuen aitak bat-batean nire harridurarako.

Hainbesteraino txunditu nintzen, ezpainen tokian sudurra besarkatu niola.

Makuluetan eutsiz pakete bat ireki zuen berak orduan eta bertan bainuko toalla luze bat agertu zen, zurtasun distiratsukoa eta oilar gorri bat brodaturik besterik ez zuena. Bisitetan burukoaren azpian gordetzen zuena da beraz. Halaxe da, halaxe da gogoan daukat, haren mahaitxoaren gainean baria zegoen.

— Ez dut hartuko, esan nion lazki, buruarekin ezetz eginez.

Halako aurpegia zuen berak, halaxeko begiak hartu egin nuela...



Urte askotan egon zen Mourievon nire gelan zintzilikatuta, nirekin egin zituen gero bidaiak. Azkenean, zaharra, erabilia, zulatua zegoela, desagertu egin zen oroigarriak erabiltzen eta desagertzen diren moduan.

# Altzairuzko zintzurrestea

Honela bada, bakar-bakarrik geratu nintzen. Azaroko iluntasunak eta haren elur-zurrumbiloez inguratzen ninduten. Lurperatuta zegoen etxea, tximiniak orro egiten hasiak ziren. Nire bizitzako hogeita lau urteak hiri izugarri batean igaro nituen eta elur-ekaitzak erromatarren garaian bakarrik orro egiten zuenaren ustetan nengoen. Egia esateko eder baino ederrago egiten du orro. Gauak hemen luze samarrak ziren, pantaila urdindun lanpara leihoaren belztasunean isladatzen zen, nire ezkerretara distiratzten zuen orban honetan begiak ipinita ametsetan ari nintzen. Ametsetan ari nintzen berrogei kilometroetara zegoen hiri harekin. Hara ihes egiteko irrikitzen ari nintzen lanpostu hau uztearren.

Han bazegoen argindarra, kontseilua eska niezaiekeen lau sendagile, eta bertan gerta zitezkeen gauzak ez lirateke izugarriak izango. Baina ez neukan ihes egiteko inolako aukerarik eta pixkanaka pixkanaka konturatu nintzen ahul-

tasunak irabazten zidala. Ez nituen horretarako egin noski ikasketak medikuntzako fakultatean...

«... Alabaina, ohizkoa ez zen oheraketa egiteko eramanez gero emakumeren bat? Edota, pentsa, itotako hestesobreren bat, zer egin? Emaizkidazue zuen kontseiluak mesedez. Berrogeita zortzi egun dira fakultatea utzi nuela «Bikain» jarri nindutelarik, alabaina ohorezko ezarketa gauza bat da eta hestesobrearena bestea. Behin bakarrik izan nuen irakaslea itotako hestesobre baten ebakuntza egiten ikusteko aukera. Ebakuntza egiten zuen berak, eta ni anfiteatroan aurkitzen nintzen eserita. Ez besterik ...»

Sarritan hestesobreaz pentsatzen ari nintzela, izerdi hotza sumatzen nuen bizkarrezurretik barrena. Gauero, tea hartu eta gero ondoko modu honetan geratzen nintzen beti eserita: nire ezkerretara kirurgi-ostetrizia esku-liburuak gainean Doderlein txikia zutela eta eskubietara ebakuntza kirurgiako hamar liburu-ale desberdinak, eskemez beterikoak. Intzirika, erretzen, te beltza hotz-hotza zegoela hartzen aritzen nintzen...

Loak hartuta nengoen: ederki aski gogoratzen naiz gau hartaz, Azaroaren 29a zen, ateko zarata batek esnatu ninduen. Bost minutu geroxeago prakak jantzi nituen ebakuntza kirurgiako liburu miresgarri hari nire erreguzko begirada kendu ezinik. Patinen karraska bat entzun nuen pasiloan zehar: nire belarriak oso bereziak bilakatzen ziren halako gauzak sumatzeko. Egia esateko hestesobre bat edo zeharkako agerpenen bat baino okerragoa zen Nikolskoieko ospitaleko kontsultara eraman zidaten nextarena. Zera adierazi zidan ixilka:

— Ahula da nexka, hiltzen ari da... Jauna, etor zaitez mesedez ospitalera...

Pasiloa zeharkatu nuela gogoratzen naiz, ospitalearen sarrerako petrolio-argirantz eramana izan nintzela, dizdizka etengabe begiratzen niola, liluraturik bezala. Kontsultako gela piztuta zegoen dagoeneko eta nire laguntzaile guztiak neuzkan zain, jantzita zeudela atorra eta guzti. Hauek, Demian Loukitx erizaina, gaztetxo baina trebea oso, eta esperientzia handiko bi erizain ziren, Anna Nikolaievna eta Pelagie Ivanovna hain zuzen ere. Ni, duela bi hilabete sendagile

eta Nikolskoieko ospitaleko buru izateko izenda-  
tua besterik ez nintzen.

Erizainak handikerazko keinu batez zabal-  
zabalik jarri zuen atea eta ama agertu zen. Zitzu  
bizian sartu zen bera, eramaten zituen feltrozko  
botetan irristatzen zelarik. Fularreko elurra  
oraindik ez zitzaion urtu. Besoetan, erritmo erre-  
gularrean orroka eta txistuka ari zen konkorratzen  
zeraman. Aurpegi asaldatua zeukan, eta negar  
egiten zuen ixilka. Ardi-larrua eta fularra erantzi  
eta fardela askatu zituenean, hiru bat urte izan-  
go zituen neska txiki bat ikusi nuen. Begiratu  
egin nion eta une batez ahaztu nituen ebakun-  
tza-kirurgia, bakardadea, unibertsitatean alferri-  
kakoa izan zen jakintza-pilatzea: guztiak ahaztu  
nituen ausarki, nexkaren edertasunaren  
aurrean. Zerekin egin konparaketa? Halako hau-  
rrek bonboi kaxetan margotzen dituzte bakarrik,  
honela; ile kizkurra berezkoa dutela, zekale ia  
soildurikoen koloreko kizkur handiekin, begi  
urdin ilun ikaragarriak, panpin-masaildunak.  
Aingeruak izaten dira hala margotzen dituzte-  
nak. Alabaina, hodei arraro bat ipini zitzaion  
begien barne-barnean, beldurra zela huraxe

ohartu nintzen: arnasarik ezin zuen hartu. «Hemendik ordu batera hilko da», pentsatu nuen erabateko ziurtasunez, mina sentitu nuen bihotzean...

Arnasa hartze bakoitzean neska txikiaren eztarria hondoratu egiten zen, zainak handitu egiten zitzaizkion eta haren arrosa kolorezko aurpegiak more kolorea hartzen zuen. Berehala konturatu nintzen kolore honek zer adierazi nahi zuen. Instanteko ohartu nintzen hura zenaz, zehatz-mehatz egin nion diagnostikoa eta esan beharra dago erizainekin batera egin nuela, esperientzia baitzuten hauek, zera:

«*Croup* dipterikoa du nexkak, mintzek eztarria trabatu diote dagoeneko eta, erabat itxita geratuko zaio aurki...»

— Zenbat denbora darama gaixorik galdetu nuen nik nire laguntzaileen isilune arretatsuaren aurrean.

— Bosgarren eguna du, bosgarrena bai horixe, esan zuen amak bere begi lehorrez zuzen-zuzen begiratzen ninduela.

— *Croup* dipterikoa, esan nion nik erizainari marmarka.

Eta amari ondoko hau:

— Zertan ari zara pentsatzen, esaidazu, zertan?

Une horretantxe atzean ahots negarti bat sumatu nuen, ondoko hau:

— Bosgarren eguna, sendagile jauna, halaxe da bai, bosgarrena!

Jiratu egin nintzen eta emakume zahar isil bat ikusi nuen bere aurpegi borobil-borobila fular batean bilduta zuena.

«Bai ona izango litzatekeela halako emakume zahar onik egongo ez balitz gehiago», pentsatu nuen arriskuren bat hurbiltzen zela tristuraz susmoa izanik.

— Zu zahar hori isildu zaitez, traba egiten didazu, esan nion.

Eta amari zera adierazi nion berriz ere:

— Zertan ari zara pentsatzen bada? Bost egun horietan? Hala al da?

Bat-batean, ustekabeko keinu batez amak zaharrari nexka eman eta nire aurrean belaunikatu zen.

— Emaizkiozu tantak, kopetak zorua jotzen zuelarik, bera hiltzen baldin bada, lepotik zintzilik jarriko naiz.

— Altxa zaitez berehala, erantzun nuen nik, gainerakoan ez dizut gehiago jaramonik egingo.

Buelo handiko gona zeramalarik azkar-azkar altxa zen ama, zaharrari besoetarik nexka kendu eta kulunkatzen hasi zen. Zaharra errezatzen hasi zen atearen marko aldera jiratuta, neskak berriz, suge batek bezalaxe hartzen zuen arnasa. Zera esan zidan erizainak:

— Denek igualtxo egiten dute. Hau jendea hau!

Hitz hauek esatean bibotea alde batera okertu zitzaion.

— Hil egingo al da bada? galdetu zuen amak, nire ustetan amorrazio ilun batez begiratzen ninduela.

— Bai, esan nion nik ahotsa bortxatu gabe, baina ziurtasunez.

Berehala, zaharrak gona azpitik hartuta begiak lehortu zituen. Amak berak bere onetik ateratako ahots batez zera esan zidan oihuka:



— Emaizkiozu, zerbait egin ezazu! Emaizkiozu tantak!

Argi eta garbi ikusten nuen zer zen heldu zitzaidana eta tinko aritu nintzaion hari; honela:

— Esango al didazu zer nolako tantak mesedez? Esaidazu mesedez! Nexka itotzen ari da, txikituta dauka dagoeneko eztarria. Bost egunetan zehar utzi duzu zeure haurra hiltzen hemen-dik bost kilometroetara. Eta zer nahi duzu nik egitea?

— Zuk zeuk jakin behar duzu, sendagile jauna; esan zuen zaharrak naturaltasun handiegirik gabeko ahotsaz, nire ezkerreko sorbaldaren gainean negar egiten zuela.

Gorrotoa hartzen hasi nintzaion berehala.

— Ixo! esan nion.

Eta erizainaren aldera jiratuta, nexka hartze-ko agindu nion. Amak emaginari eman zion. Neskatila mugitzen hasi zen; itxuraz garrasi egiten saiatzen zen, baina ahotsa ez zitzaion ateratzen jadanik. Amak babestu egin nahi zuen, baina baztertu egin genituen guk. Tximist-lanpararen argipean lortu nuen beraz nexkaren eztarria ikustea. Ordurarte inoiz ez nuen dipteriarik ikusi,

azkar ahazten diren ardurarik gabeko kasuak izan ezik. Eztarrian, zurixka zen zer edo zer ikusten zitzaion, apurtuta egongo balitz bezala, eta gargarak egiten ari zena. Nexkak bat-batean haizea bota zuen eta aurpegira txistua bota zidan, ez nuen ordea ez dakit nik zergatik begiengatik inolako beldurrik, nire burutazioek kezkatzen baininduten.

— Hara esan nuen, nire lasaitasunaz harriturik, ondoko hau dugu egoera: Beranduegi dugu, nexka hiltzear dagoelarik. Alferrik ari zara ez badiozu zera egiten, ebakuntza.

Zergatik esan ote nuen nik hura? Ni neu ere harrituta ninduen, baina ez neukan esaterik.

Eta ados azaltzen badira haiek? Pentsamendu honexek nahasten zizkidan barrenak.

— Nola baina? galdetu zuen amak.

— Eztarripean ireki behar zaio eta zilarrezko tubo bat ipini arnasa hartu ahal izan dezan; agian orduan salbatuko dugu, adierazi nuen.

Amak eroek begiratu ohi duten bezala begiratu zidan eta besapean hartu zuen haurra. Zaharra, zera esaten hasi zen berriro:

— Ezta pentsatu ere! Ez utzi irekitzen! Oker zaude! Eztarria ireki!

— Alde, zahar hori! esan nion nik higuinez.

— Presta ezazu alkanforrezko injekzio bat, agindu nion erizainari.

Xiringa ikusi zuenean, amak ez zuen nexka utzi nahi izan, baina guk ezeren beldurrik ez izateko adierazi genion.

— Ongi egingo al dio honek? galdetu zuen amak.

— Ez noski.

Negarrez hasi zen orduan.

— Aski da! esan nion nik.

Erlojua atera eta zera adierazi nuen:

— Bost minutu ematen dizkizut pentsatzeko. Ados ez baldin bazaude, behin bost minutu horiek pasata, ez dut ezertxo ere jakin nahi.

— Ezta pentsatu ere! esan zuen amak moz-tuz.

— Ez duzu gure oniritzia, erantsi zuen zahar-rak.

— Tira, nahi duzuen bezala, bota nuen nik ahots gor batez, eta zera pentsatu nuen: «Hara, akitua dago dagoeneko! Errazagoa da niretzat.

Esan eta proposatu dut egin beharrekoa, emaginek begi batzuk ipini dituzte! Beraiek ez daude ados, salbatuta nago.»

Pentsamendu hau izan eta berehalaxe, nire ahotsa ez zen batek zera esan zuen nire tokian:

— Erotu egin al zarete edo? Ez zaudetela ados? Hiltzera behartzen duzue haurra. Esan ezazue baietz. Ez al duzue errukirik?

— Ez! oihukatu zuen amak berriro.

Eta zera pentsatzen nuen nire baitarako: «baina zer da egitera noana! Akabatu egingo dut nexka hau». Baina esan nuena erabat bestelakoa izan zen:

— Tira bada, onartuko al duzue azkar! Onar ezazue bada! Hara, azkazalak urdintzen ari zaizkio.

— Ez! Ez!

— Eraman itzazu bada egongelara, eta egon daitezela bertan.

Guti samar argitutako pasilotik barrena eramane zuten. Haien negarrak eta haurraren arnas txistua entzuten nituen.

Berehala itzuli zen erizaina:

— Konforme daude! esan zuen berak.

Harri eta zur geratu nintzen, halere zera adierazi nuen ahots arrotz batez:

— Garbi itzazue azkar bisturia, guraizeak, banangailuak eta sonda!

Pixka bat geroxeago, ziztu bizian zeharkatu nuen pasiloa, eta bertan, orro batez deabru baten moduan astintzen zen elur-ekaitza. Etxera iritsi nintzen eta minutu bakoitza kontatuz, liburu bat hartu nuen, begiradaxo bat bota eta azkenean aurkitu nuen trakeotomiaren eskema bat. Argi eta garbi azaltzen zen dena bertan: eztarria irekita zegoen eta bisturia trakea-artesian zegoen jarrita. Testua irakurtzen hasi nintzen, baina ez nuen ezertxo ere ulertzen, hitzek, horixe gauza arraroa, nire begi aurrean egiten zuten salto. Sekulan ez nuen trakeotomia egiten ikusi. Beranduegi da orain bai! pentsatu nuen, eta atsekabezko begirada bat urdinari boteaz, eskema haren kolore biziei; eginkizun zail, ikaragarri bat iritsi zitzaidanaren sentrazioa izan nuen. Ekaitzari jaramonik egin gabe beraz, ospitalera itzuli nintzen.

Kontsultako gelan, gona zabaleko itzal bat itsatsi zitzaidan eta zera esan zuen ahots negartibatek:

— Sendagile jauna, nola irekiko diozu ene txikiari eztarria? Ez al duzu bada pentsatzen? Emakume lelo honek oniritzia eman du, nik berriz ez kitto. Tantak ematea ondo ikusten dut, baina eztarria irekitzen ez dut nik utziko.

— Eraman ezazue emakume hau hemendik! Oihukatu nuen.

Eta zera erantsi nuen nire suminaldian:

— Zeu zara, emakume leloa, zeu! Eta bera da hain zuzen ere azkarra! Eta beste aldetik, inork ez dizu ezertxo ere galdetu! Alde hemendik!

Emaginak zaharra sendo heldu zuen eta gelatik kanpora bota.

— Prest dago! esan zuen bat-batean erizainak.

Ebakuntza-areto txikian sartu ginen eta belo batetik barrena bezalaxe ikusi nituen distiratzen zuten tresnak, itsutzen zuen lanpara, argizarizturiko oihala... Azkenekoz ikusi nuen ama, besoetatik haurra kendu berri ziotena. Ahots marran-

tatsu batek zera esaten zidala besterik ez nuen entzun:

— Nire senarra ez dago hemen. Herrian dago. Etorriko da eta zer den egin dudana jakingo du, akabatu egingo nau!

— Akabatu egingo du, esan zuen berriz zahar-  
rrak, beldurrak akabatzen begiratzen ninduela.

— Etzaiezue sartzen utzi, agindu nuen. Bakar-bakarrik geratu ginen ebakuntza-aretoan ondoko hauek: laguntzaileak, neu, eta Lidka, nexka. Eserita zegoen hau, goitik behera bilutsik mahai gainean eta ixilean egiten zuen negar. Luzeka jarri zuten, eta sendoki eutsiaz, eztarria garbitu zioten eta iodoz igurtzi. Ondoren bisturia hartu nuen, etengabe zera pentsatzen nuelarik: «Baina, zer da egitera noana?». Erabateko patxada zegoen ebakuntza-aretoan. Bisturia hartu eta eztarri zuri eta lodikote hartan goitik beherako ebaki bat egin nuen. Ez zen odol tanta bat ere atera. Bigarren ebaki bat egin nuen bisturiaz bazterturiko larruan azaldu zen arrasto zurian.

Berriz ere, odol tanta bat ere ez. Pixkanaka, nire atlasa desberdinen eskemaz gogoratzeko

ahaleginetan, saiatu nintzen okerturiko sonda batez baliatuta meheegiak ziren ehunak bereizten.

Orduantxe ebakiaren beheko aldean odol beltza isuri zen, ez dakit nik nondik, zauria gainezkatu berehala eta lepoan zehar irristatu zen. Erizaina tapoiez baliatuz garbitzen hasi zen, hala ere isurtzen zen. Unibertsitatean ikusia nuen guztia gogoraturaz, zauriaren ezpainak hurbiltzeko ahaleginak egin nituen, baina alferrik.

Izerdialdi hotzak izan nituen eta kopeta bustita neukan. Barren-barrendik damutzen nintzen medikuntzako fakultatera joan izanak, galdutako zulo honetan erori izanak. Itxaropen gabeko mugimendu oker batean sartu nituen matxardakitsu-itsuan ebakitik hurbil; zart egin zuten haiek eta berehala utzi Zion odolak isurtzeari. Zauria gasazko tapoiez baliatuta garbitu genuen, bertan zegoen nexka nire begipean, garbi eta erabat ulergaizki. Ez zegoen inon zintzur-arteriaren arrastorik ere eta nire ebakiak ez zeukan inongo eskemaren trazarik. Bi edo hiru minutu igaro ziren eta nik erabat oharkabeko eta lotezinezko modu batez zulatzen nuen zauria, bai bisturia,



bai sondarekin, zintzur-arteriaren bila. Bigarren minutuaren azken aldera, nire onetik aterata nengoen ez aurkitzeagatik. Hauxe da azkena, pentsatu nuen. «Zergatik egin dut halakorik? Ebakuntza ez proposatzea aski nuen eta Lidka lasai-lasai hilko zen gela batean, orain berriz eztarria deseginarekin hilko da eta inoiz ezingo diot inori frogatu edozein modutara ere, neuk ezin nuela gauza gehiago larritu...» Txintik esan gabe, emaginak kopeta lehortu zidan. «Bisturia utzi eta zera esan: ez dakit zer egin behar dudan hemendik aurrera» . Pentsamendu horixe izan nuen nik, eta amaren begiak ikusi nituen berriro. Berriz ere altxa nuen bisturia eta helburu jakinik gabe, ebakidura sakon garbi bat egin nuen Lidkaren haragian. Mintzek eman egin zuten eta kolpez, begi aurrean zintzur-arteria izan nuen.

— Banangailuak! Bota nuen ahots marranta-tsuaz.

Erizainak eman egin zizkidan. Alde batean sartu nuen banangailu bat eta bestean bestea, eta bietako bat erizainari eutsi arazi nion. Orduan, ondoko gauza hauek besterik ez nituen ikusten: zauriaren eraztun txiki grisaxkak. Zin-

tzurra zauritik atera zen, erizaina erotu egin zela bururatu egin zitzaidan niri: zintzurra bere lekutik ateratzen hasi baitzen bat-batean. Nire atzean bi emaginek garrasi bat bota zuten. Begiak altxa nituen eta gertatzen zenaz jabetu nintzen, hauxe: erizainak bero itogarri hartan hain zuzen ere, kontua galtzen ari zela banangailua askatu ere egin gabe, zintzur-arteriatik tiraka ari zen. «Dena dago nire aurka, patua da hain zuzen ere; une honetantxe Lidka ito dugu, halaxe da». Eta lazki zera erantsi nuen nire barrutik: «laster nire etxean, nire buruari tiro bat emango diot...» Orduan, emagin nagusia, itxuraz esperientzia handiduna erizainarengana bota zen harrapakin baten moduan, eta banangailuari eutsi zion zera esaten zuela hortzak estutuz:

— Jarraitu, sendagile horrek...

Erizaina zaratatsuki erori zen, kolpea hartu zuen baina ez genion gehiago jaramonik egin. Bisturia sartu nuen zaurian, eta ondoren zilarrezko hodia sartu nuen bertan. Erraz sartu zen hauxe, baina Lidkak mugitu gabe jarraitzen zuen. Haizea ez zen sartu behar zuen bezala sartzten zaurian. Hasperen sakon bat egin eta geldid-

tu egin nintzen: horixe zen egin nezakeen guztia. Norbaiti barkamena eskatzeko beharra neukan, medikuntzako fakultatera halako arintasunaz sartu izanaz damutzekoa ere. Ixiltasuna nagusitzen zen. Lidka urdintzen ari zela ikusten nuen. Dena uzteko eta negar egiteko beharra neukanean, bat-batean, biziki astindu zen, hoditik barrena mukositate maltzur mordo bat bota eta txistuhots batez sartu zen haizea haren ezarritik; ondoren nexka arnasa hartzen eta oihuka hasi zen. Une horretantxe erizaina altxa egin zen, zurbil, izerdi patsetan, eztarria begiratu zuen, baldarkiro, beldurturik, eta niri josten laguntzen saiatu zen.

Ametsetan bezalaxe, eta begiak estaltzen zizkidan arnasketa-oihaletik barrena ikusten nituen emaginen poz aurpegiak; zera esan zidan haietako batek:

— Hona hemen ondo burututako ebakuntza bat, jauna!

Adar joka ari zitzaidala iruditu zitzaidan, eta betilun begirada bat bota nion azpitik. Ondoren, ateak zabal-zabal ireki eta haize-putz fresko bat sartu zen. Oihal batean bilduta eraman zuten

Lidka eta berehala ama agertu zen atean. Pizti basatiaren begiak zeuzkan. Zera galdetu zidan:

— Eta?

Haren ahotsaren doinua entzunda, izerdia sumatu nuen bizkarretik barrena: orduan hain zuzen ere ulertu nuen zer gertatuko zatekeen Lidka hilik egon izan balitz ebakuntza-mahaian. Alabaina, ahots lasaiaz zera erantzun nion:

— Lasaitu zaitez. Bizirik dago-eta. Biziko dela espero dut. Baina hodia kentzen ez diogun bitartean, ezingo du hitz egin, beraz ez beldurrik izan.

Une horretantxe, zaharra agertu zen deabru bat bere kaxatik kanpo egonda bezala, gurutz-zeinuak egin zituen ateko eskutoki aldera, niregana, sabai aldera. Baina, oraingo honetan ez nintzen haserretu. Jiratu egin nintzen eta Lidkari alkanforrezko xiringa bat jarri eta zaintzeko txandak egin zitzaten agindu nuen. Ondoren, etxera itzuli nintzen pasiloa zeharkatuz. Nire gelako argi urdinaz gogoratzen naiz, bertan dagoen Doderleinaz eta sakabanatutako liburuez. Goitik behera jantzita, kanapera hurbiltzen naiz, etzanda jarri eta berehala ez dut ikusten

zer den bertan dagoena. Amets bakar bat ere izan gabe egin nuen lo.

Egun eder batean, Urte Berriaren ondotik, emakume bat sartu zen kontsultako gelan, fardel bat bezalaxe bilduta neskato bat eskutik heldua zeramalarik. Begi distiratsuak zeuzkan emakumeak. Adi-adi begiratu nion eta ezagutu egin nuen.

— Ene, Lidka da-eta! Zer moduz?

— Ederki.

Lidkaren eztarriak ez zuen bendarik. Lotsatu ta zegoen haurra eta beldurrez, hala eta guztiz ere lortu haren kokotxa altxatzea begiratzeko. Haren arrosa koloreko lepoa orbain gorrilun, goitik beherako batez eta beste bi oso fin eta zehar-kakoez, puntuak zirela-eta, zegoen markatuta.

— Primeran dago, esan nuen nik, ez duzue berriro etorri beharrik.

— Eskerrak ematen dizkizut jauna, eskerrik asko, esan zuen amak.

Ondoren zera agindu zion Lidkari:

— Esaiozu eskerrik asko gizonari. Baina Lidkak ez zidan ezer esan nahi.

Ez nuen bizitza osoan berriz ere ikusi. Ahazten hasi nintzaion. Kontsultei dagokienean gero eta gehiago neuzkan. Halako moduan, egun batean ehun eta hamar lagun ere izan nituela. Goizeko Hamarretan hasten ginen, arratsaldeko zortzietan bukatzen genuen. Duda-mudatan edo erantzi nuen alkandora. Emagin nagusiak zera adierazi zidan:

— Trakeotomiari esker ditugu hainbeste kontsulta. Ba al dakizu zer esaten duten herrietan zehar? Bada, esaten dute Lidkaren zintzur-arteria txarraren tokian altzairuzko zintzur bat jarri eta atzera josi egin diozula. Herri hartara joaten omen dira Lidka ikusteagatik bereziki. Ospetsua egin zara jauna, nire zorionik beroenak zuretzat.

— Eta hala bizi al da altzairuzko zintzurra duela? galdetu nuen.

— Bai, hala bizi da. Zuri dagokizunez, jauna, txalo bero bat! Miresgarria da zer-nolako odol hotzez jokatzeko duzun!

Bai... beno... badakizu, ez naiz sekulan nire onetik ateratzen, esan nuen zergatik ez nekiela, baina neukan nekerako lotsarik ez izateko gauza

ere banintzenaren jakinaren gainean, eta beste aldera begiratu besterik ez nuen egin.

Agur esan nion eta etxera itzuli nintzen. Elur maluta handiz ari zuen elurra, dena estali zuen; piztuta zegoen farola eta nire etxea bakarti, lasai eta harro-harro. Ni berriz, oinez nindoala, gauza bakarra desiratzen nuen, zera: lo egitea.

# Elur-ekaitza

*Batzuetan basa-piztia baten moduan  
egiten du orro,  
Bestetan, negar egiten du  
haur baten moduan.*

Historia guzti honen abiapuntua, Aksinia guztijakitunaren esanetan, Xalometievoko Paltxikov enperadorea agronomoaren alabaz maitemindu zela izan omen zen. Amodio hura sutsua zen eta gizon gizarajoaren bihotzak etsi egiten omen zuen. Gratxovka hirira joan eta traje bat egiteko agindu zuen. Arrakasta handia izan zuen traje hark eta ezin da baztertu bada praken arrastoak zoritxar honen etorkizunaren erabakitzaileak izan zirela. Agronomoaren alaba haren emazte izateko prest agertu zen.

Ni, ospitaleko eta Untel gobernamentuaren X sektoreko medikua nintzenari zegokidanez, lihoaren trangelarekin hanka harrapatu zuen neska-ri egin nion anputazioaren ondotik; hain ospetsua egin nintzen hortxe ibili nintzela hartu nuen



izenaren pean ez erortzeko. Egunero ehun nekezari hasi zitzaizkidan etortzen kontsultara elur-lera bideetatik barrena.

Bazkaltzeari utzi nion. Latza da aritmetika zientzia. Kontu egin dezagun nire ehun gaixo bakoitzarekin bost minutuz egoten naizela... bost! Bostehun minutuz, hau da zortzi ordu eta hogeitaz minutuz. Ilaran jarrita, pentsa. Horretaz gainera, ospitalizaturiko hogeita hamar lagunez osatutako zerbitzu bat banuen. Eta operazioak egin behar izaten nituen ere.

Hitz batean esateko, gaueko bederatzietan ospitaletik itzultzean, ez nuen ez jan, ez edan, ez lo egiteko gogorik ere. Ez nuen ezertarako gogorik, erditzeko zegoen norbait etortzen ez bazitzaidan behintzat. Bi astetan eraman ninduten eta bost bider, gauez, elur-lera bideetatik barrena.

Hezetasun nahasi bat azaldu zitzaidan begietan, goitik beherako zimur bat har baten moduan jarri zitzaidanean sudurraren hasieran. Gauez, hodei nahasi batean gaizki egindako operazioak ikusten nituen, bilutsik zeuden saihetsak eta eskuak odolez beteta nituela, orduan bada

esnatu nintzen, izerdi patsetan eta pixka bat izoztuta estufaren berotasuna izanda ere.

Bisitaldia, pausu arinez egiten nuen, atzetik arrastaka ekartzen nituela erizaina, erizaintsa eta bi emagin. Arnas neketsu eta sukarraren eraginez hitzak dioen bezala kixkaltzen zuen gaixo baten bazterrean geratzen nintzenean, nire garuna estutzen nuen eduki guztia ateratzearen. Nire behatzek azal lehor eta distiratsua ukitzen zuten, begininiak aztertzen nizkion, alboak kolpatzen nituen, bihotzaren barne-barnean entzuten nuen ezkutuko astindura, pentsamendu bakarra neukan barruan: «Nola salbatuko ote nuen. Eta beste hori, nola? Eta beste hura! Denak!»

Atergabeko borroka zen huraxe. Goizero hasten zen, elurraren argi zurbiletan, argi-lanpara distiratsuaren laranja koloreko argi fortearen pean bukatzeraino.

«Nola amaituko ote du honek? Interesgarria litzateke jakitea, esaten nion nire buruari gaue-ro, elur-lerek jarraituko dute etortzen ziur aski urtarrilean, otsailean eta martxoan ere».

Gratxovkara idatzi nuen, gizabidez adieraziz X sektorerako beste mediku bat jartzekoak zirela.

Elur-leraz joan zen eskutitza, elurraren ozeano leunetik barrena, hemendik berrogei kilometroetara. Hiru egun beranduago iritsi zen eskutitza: horixe baietz..., horixe baietz..., nola ez bada... baina oraingoz... inor ez dago libre une honetan... ziotelarik.

Eskutitzaren bukaeran, zenbait kunplimendu bidaltzen zizkidaten nire lanari buruzkoak eta aurrerantzean arrakasta izateko opatzen.

Haserreturik nengoela jarraitu nuen zuloak tapatzen, dipteriaren aurkako sueroa ipintzen, zornazorro handi-handiak irekitzen, igeltsuak ipintzen...

Asteartean ez ziren ehun lagun etorri, ehun eta hamaika baizik. Kontsulta gaueko bederatzietan amaitu nuen. Loak hartu ninduen hurrengo egunean, asteazkenean zenbat etorriko ote ziren asmatzeko ahaleginetan nengoela. Bederatziehun zeudela egin nuen amets.

Zuritasun harrigarri batez agertu zen nire gelako leihotik goiza. Begiak zabaldu nituen,

zerk esnatu ninduen ulertu ere gabe. Ondoren konturatu nintzen zer zen: norbait ate joka hain zuzen ere.

— Sendagile jauna! (Pelagie Ivanovnaren ahotsa zen hura) Esnaturik al zaude?

— Beno, esan nuen marmarka erdi-lotan.

— Ospitalera joateko presaka ez ibiltzeko esatera etorri natzaizu. Bi lagun besterik ez baitaude.

— Baina! Txantxetan ari al zara?

— Benetan! Ekaitzarengatik da sendagile hori, ekaitzarengatik esan zuen berriro hark sarrailako zulotik barrena. Hortz kareatuak dira begiratu beharrekoak, Demian Loukitxek aterako ditu.

— Ez da posible...

Ohe azpiraino ere egin nuen salto, zergatik ongi jakin gabe. Eguna ondo joango zela agerian zegoen. Bisita eta gero, denbora guztia geletatik barrena ibiltzen pasa nuen (medikuarentzat jarritako bizi-lekua lau gelek osatzen zuten eta jaungoikoak daki zergatik bi etxe-bizitzek: hiru gela goikoan, sukaldea eta beste hiru behekoan) operako doinuak kantatzen, erretzen, danborra

jotzen baldosetan... Baina, baldosen atzean, inoiz ikusi ez nuen gauza gertatzen zen, zera: ez zen ez zeru, ez lurrik ageri. Buelta eta jiraka ari zen hura, zuri-zuri, alde guztietatik, deabruren bat irinarekin jolasean arituko balitz bezala.

Eguerdian, Aksiniari (medikuaren sukaldari eta garbitzaile moduan lan egiten zuen berak) hiru ontzi eta marmita batean ura irakiten jartzeko agindu nion. Bazen hilabete bat ez nintzela garbitu. Aksiniak upatxo handi-handi bat ateratzen lagundu zidan. Sukaldean lurrean ipini genuen guk upatxoa. (X delako hartan ez zegoen eztabaidatzerik bainua hartzearena. Ospitalean besterik ez baitzegoen egiterik, ez zeuden batere ondo gainera).

Eguerdiko ordu biak aldera, kanpoan, lasaitu egin ziren korapilatzerakoan sarearen tarteak, eta nik neuk upatxoan jarraitu nuen bilutsik, burua xaboiez beteta nuelarik.

— Honexek, honexek egiten du on... marruskatzen nuen gogoz, bizkarretik barrena ur bero-beroa botatzen nuela, horrelaxe, ederki dago! Gero bada, afaltzera joango gara, eta ondoren lo egitera. Eta asper-asper egiteraino egiten badut

lo, biharamunean, ehun eta berrogeita hamar lagun ere etor daitezke. Berririk bai Aksinia?

Aksinia ate atzean zegoen bainu-operazioa amaitzearen zain.

— Xalometievo jabegoaren enplegatua ezkondu egiten omen da, erantzun zuen berak.

— Ez da posible! Onartu al du?

— Benetan! Hain maitemindurik dago..., Kantatu zuen Aksiniak, ontziteri-hotsen artean.

— Polita al da bada andregaia?

— Lehen mailako edertasuna bai huraxe! Ile-gorria, liraina...

— Beno, aska ezan bada!

Une hartantxe kolpe handi bat eman zioten ateari. Ilunkiro, uraz igurtzi eta belarriz zorroztu nuen.

— Sendagilea bainua hartzen ari da... esan zuen Aksiniak doinu kantariaz.

— Mar... mar... mar..., marmarkatu zuen azpitik ahots batek.

— Karta bat dago zuretzat, sendagile hori! Txiokatu zuen Aksiniak sarrailaren zuloatik.

Bildu-bildu eginda upatxotik atera nintzen patuari biraoka eta bustixea zegoen estalkia kendu nion eskuetatik Aksiniari.

«Ez da pentsatu ere! Ez naiz hemendik mugituko. Gizona bainaiz, gauza guztien gainetik! nion nire buruarekiko, ez oso ziur, karta upatxoan irekitzen nuen bitartean.»

Lagun agurgarri hori (harridurazko puntu ikaragarri bat) Mesed (ezabaturik) Berehala etor zaitezzen eskatzen dizut arren. Buruan kolpe bat hartzearen ondorioz odoljarioa izan du sudurra-  
ren zulot (ezabaturik) eta ahotik.

Kontua galduta dago. (Ezinean nago ni) Berehala etor zaitezela eskatzen dizut. Zaldiak primerakoak dira. Pultsu txarra dauka. Alkanforra badago. (Irakurtezineko sinadura) Sendagilea.

«Ez dut nik egia esateko bizitzan zorterik», pentsatu nuen tristuraz, egurra estufan distiratz-  
zen ikusten nuela.

— Gizona al da eskutitz hau ekarri duena?

— Hala da bai.

— Sar dadila!

Sartu egin zen, eta Antzinako Erromatar bat ikusten nuela iruditu zitzaidan, belarriak estal-

tzen zizkion txanoaren gainean eramaten zuen kasko eder hura zela-eta. Zamar batean bilduta zegoen; haizelaster hotz batek eraso ninduen.

— Zergatik daramazu kaskoa? galdetu nion, erdi-garbituta neukan gorputza toalla batez ezkututzen nuelarik.

— Barberoa nauzu Xalometievon. Su-hiltzaile talde bat dugu bertan..., erantzun zuen Erromatarrak.

— Geure agronomoaren gonbidatu bat. Sendagile gaztea bera. Zorigaitz bat iritsi zaigu, benetako zorigaitza...

— Nor da emakume hori?

— Enplegatuaren andregai.

Aksiniari, atearen atzetik, hasperenak egin zion ihes.

— Zer da gertatu dena?

Aksiniaren gorputza atean itsasten entzuzen.

— Atzo, ezkongaien eguna zen, eta ezkongaien ondotik enplegatuak elur-leran bira bat eman nahi izan zion. Zaldi trostari bat lotu, eser arazi eta etxaurre aldera zuzendu da. Baina, bat-batean abiatu egin da trostaria eta andregai



irauli egin da, hankaz gora. Eta erori egin da. Hainbesterainoko zorigaitza da, azaltzerik ere ez dagoela... Begiak itsatsita egon gatzazkio enplegatuari, bere burua zintzilikatuko ote duen bel-durrez. Erotu egin baita.

— Bainua hartzen ari naiz, esan nuen ahots kexatiaz, zergatik ez duzue hona ekarri?

Eta hau esanaz burua busti nuen, eta xaboia upatxotik barrena irristatu zen.

— Ez nuen pentsatu ere egingo, zor dizudan begiramenagatik ez balitz, sendagile hori, esan zuen berak gartsuki, eskuak errukiz lotuz, ez da posible. Nexka hil egingo da.

— Esango al didazu mesedez nola joango garen? Eta ekaitza zer!

— Baretu egin da. Benetan jauna, erabat lasaitu. Zaldi ederrak dira haiek, azkar lotutakoak. Ordu batean izango gara bertan...

Etsipenezko intziri baten ondotik, upatxotik atera nintzen. Amorrazioz, bi baldekada ur bota nituen gainera, ondoren belauniko estufaren ahoan askotan sartu nuen burua, pixka bat bederen lehertzeko. «Neumonia bat harrapatuko dut, zalantzarik ez, neumonia zaratatsu bat,

halako irteeraren ondotik! Baina, gauza guztien gaineratik, zer da nexka honekin egingo dudana? Mediku honek, bere kartak azaltzen du nik baino esperientzia gutxiago daukala. Nik ez dakit ezer txo ere, baina sei hilabetetan hartu dut praktika pixka bat, berak berriz ezta hori ere. Argi dago unibertsitateak atera berria dela. Eta ni esperientziaduntzat nauka...»

Nire pentsamenduetan sartuta nengoela, ez nintzen konturatu ere egin jantzita nengoela dagoeneko. Operazio huraxe ez zen errazenetariko bat, ez horixe! Hara: praka batzuk eta brusa bat, feltrozko botak, brusaren gaineratik larruzko txamarra bat, beroki bat eta ardi-larru bat gaineratik, larruzko txano bat, poltsa bat alkanforra, morfina, adrenalina, matxarda hemostatikoak, gasa esterilizatua, xiringa bat, sonda bat, errebolber bat, zigarroak, poxpoluak, erloju bat eta estetoskopio batekin.

Hori ez zitzaidan bat ere harrigarria iruditu ilunabarra bazegoen ere; eguna bazihoan jadanik geuk azkeneko etxea pasatzen genuenean. Elurra bazirudien ez zuela hain gogor ari. Zeharka, zentzu bakar batean, nire eskubiko masaila-

ren gainera. Su-hiltzaileak, mendi baten moduan jarrita, lehendabiziko zaldiaren atzealdea estaltzen zidan. Modu onean zihoazen egia esateko zaldiak, oldartu egin ziren, eta elur-lera, gurta-rrastoetan hasi zen erortzen. Bota egin nintzen barrura, berehala beroan sartuta, neumonia zaratatsua, behin-behineko ebakiren bat eta garunean hezur-printzaren bat sartzea nexkari etorri zitzaizkidan gogora...

— Hauek al dira su-hiltzaileen zaldiak? galde-tu nuen nik ardi-larruzko lepotik barrena.

— Bai horixe... esan zuen hortz artean elur-lerazainak atzera jiratu gabe.

— Zer da bada sendagileak egin diona?

— Berak... beno bo ... sexu-gaitzak dira hain zuzen ere berak ikasi dituenak, bo ... bo ...

«Bo... bo...», egin zuen orro ekaitzak baso-txoan, albotik egin zuen ziztu ondoren, eta hai-zebolada bat izan zen... Kulunkatu... kulunkatu egiten ninduten... Sandounovskien, Moskun aurkitu nintzen arte. Orduan, ardi-larruarekin, arropa gordelekuan nengoen izerdi patsetan. Suziri bat piztu zen gero, hotza sar zitekeen, begiak zabaldu nituen eta kasko gorrimin bat ikusi nuen

distiratzen, suteren bat izango zela iruditu zitzaidan... Esnatu egin nintzen gero eta iritsiak gine-la ohartu nintzen. Itxuraz Nikolas Lehenaren garaiko etxe baten harmailaren aurrean nengoen. Iluntasun sakon-sakonak inguruan. Su-hiltzaileak ongi-etorria ematera etorri zitzaizkidan, eta emakume bat euren buru gainean ari zen dantzan. Nire ardi-larruko tartetik erlojua atera eta zera ikusi nuen: Bostak zirela. Ez genuen beraz ordu betez bidaia egin, bi ordu t' erdiz baizik.

— Emaizkidazu zaldiak berehala, esan nuen nik.

— Zeure aginduetara, erantzun zuen lerazainak.

Erdi lotan, blai blai eginda larruzko nire atorreran konpresa batean bezalaxe iritsi nintzen sartzeko lekura. Lanpara baten argiak distiratzen zuen alboan, margoturiko lurraren gainera erortzen zen argi-printza bat. Orduantxe izan zen, ile argia, erasoturiko begirada, zuela gutxi plantxatuak zeuzkan prakekin agertu zenean gazte bat. Orin beltzezko korbata zeharka zeukan jarrita, alkandoraurrea konkor baten moduan nabar-

mentzen zen, baina haren jaka hutsik gabe zegoen, berria zirudien, eta zimurdurak metalikoak bailiran.

Gizonak zeru aldera luzatu zituen besoak, nire ardi-larruari eutsi, neri astindu bat eman, nire aurka estutu eta ondoko oihutxoak hasi zen botatzen:

— Ene... sendagile hori... mugi... hiltzear dago nexka. Neu nauzu hiltzailea.

Begiratu bat bota zuen albora, latz eta ilunak ziren begiak zabaldu eta zera aldarrikatu zion ez dakit nik nori:

— Hiltzaile bat duzue hementxe, neu.

Negarrez hasi zen gero, zeuzkan ile pizarrak heldu, indarrarekin tiratu eta benetan ile-mordoxkak ateratzen zituela behatzotan korapilatuz, ohartu nintzen.

— Aski, esan nion besoak estutuz.

Norbaitek arrastaka eraman zuen. Zenbait emakume presaka atera ziren.

Neraman larrua kendu zidaten eta festarako tapiztxoei jarraituz ohe zuri baten ondoraino eraman ninduten. Sendagile gazte bat bere aulkitik altxatuta ondora etorri zitzaidan. Begi kezka-

tuak, babesik gabekoak zeuzkan. Une batean, ni bera bezain gaztea nintzela ikusi zuenean, harri-dura nabarmendu zen haren begiradan. Azken finean, aurpegi bereko bi erretratu ematen genuen, eta adin berekoak gainera. Baina gero, ni ikusteak poz handia eman ziola nabaritzen zitzaion.

— Bai kontentu nagoela... ene lagun hori... hara... ikusi, pultsua ahultzen ari zait. Egia esateko benerologoa nauzu. Zu etorri izanak kontentu jartzen nau oso...

Mahai gainean, gasa puska baten gainean xiringa bat zegoen, laranja kolorezko olio z beteriko anpulu batzuk ere. Norbaitek itxi berria zuen atetik heltzen zitzaizkigun enplegatuaren negarrak, zuriz jantzitako emakume baten irudia azaldu zen atzetik. Iluntasunean murgilduta zegoen gela, trapu berde batez estali zuten lanpararen bazterra. Itzal berdexka hartan murtxikatutako paperezko aurpegi bat zegoen burukoan atsedenean. Ile-mordoxketan zintzilik zeuden ile argiak, nahastuta erabat. Sudur zorrotzekoa zen eta sudur-zuloak odolez gorritutako kotoi batez estaliak zeuzkan.

— Pultsua..., marmarkatu zuen medikuak.

Bizirik gabeko besoari eutsi nion, ohizko keinu batez ipini nizkion behatzak eta zirgit egin nuen. Neure behatzen azpian, kolpetxoka, dardarka sentitu nuen, biziki, ondoren denak burrunbatu zuen, estalkiaren azpian kuzkurtu egin zen haren gorputza, jelatuta bezalaxe, erlaxatu egin zen gero. Eta azken itxaropenezko printzak alde egin zidan behatzen artetik.

— Hilda dago, esan nion sendagileari belarri-  
ra.

Urdin koloreko ileak zeuzkan irudi txuria, ondo luzaturiko estalkiaren gainera erori zen, haren kontra itsatsi eta dardarka hasi.

— Poliki, poliki esan nion belarrira zuriz jantzitako emakumeari, medikuak keinu mingarri batez ate aldera begiak okertzen zituenean.

— Gaixorik jartzen nau, esan zuen ahopetik.

Denek batera erabaki genuen orduan zer zen egin behar genuena, zera: ama, gelan negar egi-  
ten utzi, inori ezer ez esan eta beste gela batera eramán enplegatua.

Bertan, zera esan nion:

— Ez badiguzu injekzioa jartzen uzten, ezingo dugu lanik egin. Traba egiten diguzu eta lana egitea galarazten!

Bere adostasuna adierazi zuen berak orduan; leunkiro negar eginez kendu zuen jaka; bere ezkongai aroko alkandoraren besoa bildu genion eta morfina-xiringa bat ipini. Medikua hilaren bazterrera joan zen diotenez zaintzeko asmoarekin, ni berriz enpleguarekin geratu nintzen. Morfinak, uste genuena baino lehenago izan zuen eragina. Ordu laurden bat beranduago, intziriak eta negarrak gero eta apalagoak egiten ziren, koherentziarik gabekoak, eta enplegatuak hartzen hasi zen. Ondoren, bere aurpegi atsekabetua beso gainean jarrita hartu zuen lo. Famili arteko istilua, negarrak, zurrumurruak, oihu itogarriak, ez zuen ezertxo ere entzuten hark.

— Hara, lagun maite hori, arriskutsua izango da inora abiatzea. Galtzeko arriskuan zaude, esaten zidan medikuak ahopetik, gera zaitez sarreran, pasa ezazu bertan gaua...



— Ez, ezin dut. Joan beharra daukat nola edo hala. Hitza eman didate berehala ekarriko naute-la.

— Ekarriko zaituzte bai hala da, baina pentsa ezazu ondo...

— Tifusaiderekin dauzkat hiru kasu utzi ezin ditudanak. Gaur gauean joan beharra daukat haiek ikustera.

— Baina, nik jakinaren gainean jartzen dizut...

Urarekin nahastu zuen alkohola edatera behartu ninduen eta sarreran bertan jan nuen urdai-azpiko zatitxo bat. Sabela berotu zitzaidan atzera eta tristura pixka bat nagusitu bihotzean. Azkenekoz joan nintzen gelara, hildakoari begiratu, enplegatua ikustera pasa, medikuari morfina anpulu bat utzi eta ondo babestuta eskailera-tatik barrena jaitsi nintzen.

Bertan, ekaitza ziztuka at, zen, zaldiak burumakur elurrak astindu egiten baitzien. Kolokan zegoen zuzi bat.

— Eta bidea ezagutzen al duzu? galdetu nuen nik ahoa babesean jarriz.

— Horretarako bai, erantzun zuen lerazainak triste (berak ez zeraman kaskorik), baina geratu egin behar zenuen...

Eta haren larruzko txanoaren belarrietan ere nabari zitekeen ez abiatzeko irrikitzen zegoela.

— Geratu beharra daukagu, erantsi zuen bigarrenez, zuzi bizi bat eskuan zuela, kanpoan ez dago eguraldi onik.

— Hamabi kilometro... hasi nintzen marmarka ilunkiro, iritsiko gara bertara. Larri dauden gaixoak dauzkat nik eta...

Leratxoan sartu nintzen ni.

Onartu beharra daukat ez erantsi izana, zoritxarra nagusitzen zen eta zer eginik ez neukan eta alferrikakoa nintzen etxe hartan geratzeko pentsamendua eramangaitza egiten zitzaidala.

Lerazainak, itxaropen gehiagorik gabe bere aulkiaren gainean erortzen utzi zuen bere burua, berriz ere zutik jarri, astindu bat eman, eta etxaurrea pasa genuen azkar. Zuzia desagertu egin zen, desagertzen bezala hala itzalita la. Baina, geroxeago beste gauza batean jarri genuen interesa. Zailtasunez bira ematen nuela, konturatu nintzen ez bakarrik zuzia ez zegoela

hain nabarmen, baizik eta Xalometievo, bere etxe eta guzti amets batean bezalaxe desagertu egin zela. Horrexek harrituta utzi ninduen modu txarrean.

«Tira, motel...» pentsatu edo marruskatu nuen. Une batez atera nuen sudurra, baina berehala sartu, hain eguraldi txarra zegoen eta. Mundu guztia zentzu guztietara zabaltzen zen pilota bat bezalakoxea izanik.

Itzultzea bururatu zitzaidan. Baina uko egin nion hari, gehiago sartu nintzen belartzimeletan elur-leraren barnean, txalupa batean egongo banintz bezalaxe nengoela, kuxkurtu eta begiak itxi nituen. Berehalaxe agertu ziren berriro lanpara gaineko zapi berdea eta aurpegi zuzia. Halako batean dena argitu zen, zera: «Kaskezurraren haserako haustura bat da... halaxe da, bai, bai... halaxe da!». Egin nuen diagnostikoa zuzena zela ziur egotea zoragarria iruditu zitzaidan. Jakintsuaren trazak hauexek. Halaxe da bai, baina zertarako? Une honetan horrek ez du ezertarako balio eta lehen ere horrek ez zuen ezertarako balioko. Zer egingo nuen nik haustura honekin! Hau zorigaitzeko etorkizuna hau! Bai

zentzugabekoa eta ikaragarria dela hemen bizitzea! Zer gertatuko ote da orain agronomoaren etxean? Pentsatze hutsa ere tristea da benetan! Nire zorteaz errukitzen hasi nintzen gero. Zein bizitza zaila dudan nik! Une honetan lotan dago jendea, estufak bero-bero daude eta nik ezin izan dut berriz ere garbitu. Ekaitzak eraman egiten nau orri bat izango banintz bezala. Hara, nire etxera iristera noa eta agian nonbaitera eraman-go naute berriro. Neumonia bat harrapatu eta hementxe bertan hilko naiz... «Nire buruaz erruki izan eta gero iluntasunean murgildu nintzen, zenbat denboraz ez dakidala. Ez nintzen berriz ere bainuetan aurkitu oraingo honetan, hotzak bainengoan. Gero eta handiagoa zen hotza» .

Begiak zabaldu nituenean, bizkar beltz-beltz bat ikusi nuen; ez ginela mugitzen konturatu nintzen arte, geratuta baikeunden.

— Iritsi al gara? galdetu nuen nik, oraindik artegatsu ziren begiak zabal-zabal eginez.

Lerazaina, beltz-beltz, tristuraz beteriko mugimendu bat izan eta berehala jaitsi zen; zentzu guztietan bira ematera behartzen ziotela iru-

ditu zitzaidan, eta zera adierazi zuen begiramen arrastorik gabe:

— Iritsi gara... Entzun beharko litzateke zer den zuri esan... Zer nolako itxura daukan! Hemen geratuko gara gu eta zaldiak ere...

— Ez genuen bidea galduko?

Bizkarra jelatu egin zitzaidan.

Esango al didazu zein bide? erantzun zuen lerazainak ahots nahigabetu batez. Une hone-tan, mundu guztia da bidea. Alferrik hilko gara... Badira lau ordu bidean gaudela, norabide jakinik gabe... Atsedean apur bat...

Lau ordu. Kezkatzen hasi nintzen, erlojua tapatu nuen, poxpoluak atera nituen. Zertarako? Ez zuten ezertarako balio, ez zen poxpolu bakar bat ere pizten. Poxpolu bat igurtzi eta piztu egi-ten zen, baina sugarra berehala desagertu egi-ten zen.

— Lau ordu inguru esan dizut, bota zuen lera-zainak doinu ilun batez, zer egingo dugu orain?

— Non ote gaude gu orain?

Hain leloa zen bota nuen galdera, lerazainari alferrikakoa iruditu zitzaiola erantzutea. Alde guztietara mugitzen zen, baina zenbaitetan, gel-

dirik zegoela iruditzen zitzaidan eta neu nintzela elur-lera mugitzen zuena. Barrutik atera eta berehala konturatu nintzen lurretik hurbil belau-netarainoko elurra neukala. Azkeneko zaldia sabeleraino sartu zen elur-muino batean. Kuma, emakume burusoil bati ileak bezalaxe zintzilikatzen zitzaion.

— Bakar-bakarrik gelditu al dira?

— Halaxe da bai, leher eginda daude animalia horiek...

Halako batean zenbait kontakizun etorri zitzaizkidan gogora eta ez dakit nik zergatik, Leon Tolstoi nuen gogokoena hain zuzen ere.

«Kontentu aurkitzen zen oso lasnaia Polianan, pentsatzen nuen, baina egia esateko ez omen zuten hildakoen albora eraman...»

Su-hiltzailea eta ni neugatik ere erruki sentimendu bat izan nuen. Gero berriz ere borrokaldi basati bat sufritu nuen. Bular barnean itotzen zitzaidan hala ere.

— Koldarkeri hutsa da... marruskatu nuen hortz artean.

Energia sutsu bat ernatu zen orduan nigan.

— Entzun nire lagun horrek, esan nuen nik, hotzak jeltzen ari zitzaizkidala sentitzen nuelarik, ez dago norbera etsipenak irabazten utzi beharrik, gainerakoan hementxe geratuko gara benetan. Geratu dira pixka batean, hartu dute atsedena, jarraitu beharra dago beraz. Aurrera, eutsi aurreko zaldiaren aho sokei, nik neuk gidatuko dut. Abiatu beharra dago, lurperatuak izango baikara gainerakoan.

Larruzko txanoaren belarriak etsiak hartuta bezalaxe zeuden, baina hala eta guztiz ere, lera-zainak aurrera jarraitzen zuen. Herrenka, erorka harrapatu nuen lehendabiziko zaldia. Gure enborrak luzera etengabea zuela iruditu zitzaidan. Lerazainaren irudia ilun ageri zen nire begietan, ekaitzaren elur-bustia erortzen zitzaidan begietara.

— Aida, aida! bota zuen intzirika lerazainak.

— Aida! Aida! oihukatu nuen, uhalei zart egin araziz.

Enborrak dardar egin zuen leunkiro, trabatzen hasi zen. Elur-lera uhinen gainean bezalaxe kulunkatzen zen. Lerazainak, oso handia batzue-

tan, txiki-txikia bestetan, aurrera egiteko ahaleginak egiten zituen.

Ordu laurden inguruan jarraitu genuen guk horrela. Elur-leraren intziriak erregularragoak bihurtzen zirela sumatu nuen azkenean. Alaitasuna ernatu zen nigan zaldiaren atzeko kaskoak agertzen ikusi nituenean.

— Ez da sakona, hara bidea! oihukatu nuen.

— Iso... iso..., erantzun zuen lerazainak.

Arrastaka hurbildu zen niregana, eta kolpe bakar batez, handiagoa bilakatu zen.

— Bidea ematen du honek, bota zuen pozik su-hiltzaileak, ahotsak txorrotxio bat zuelarik. Ez al gara galduko berriro... agian...

Bakoitza bere lekura itzuli zen berriro. Kemen handiagoarekin zihoazen zaldiak. Kuzkurtuta bezala zegoen elur-ekaitza, apaltzen hasia zela iruditu zitzaidan. Baina gainean, alboetara, ez zegoen ezertxo ere, ilar-txiki txar hura izan ezik. Ez neukan hain zuzen ere erietxea aurkitzeko itxaropenik. Iristeko gogoa neukan, nora, ez zuen axolarik. Jendea bizi den tokiren batera eramango du ziur aski bide honek.



Zaldiek lorrei zakarkiro tira egin eta pausua arindu egin zuten. Poztu egin nintzen ni, arrazoia oraindik ere jakin gabe.

— Etxeren bat harrapatuko ote zuten? Galdetu nuen nik.

Lerazainak ez zidan erantzun. Elur-leran zutituz horizontea miatzen hasi nintzen. Hots arraro bat, tristuraz eta gaiztakeriaz beterikoa nonbait sartu zen ilunpetan, baina berehala isildu zen. Zergatik ez dakit baina sentsazio atsegina bat izan nuen eta berriz ere ikusi nuen enplegatua bere ahots apalez negar egiteko tankeran burua besoetan jarrita zuela. Halako batean, eskuine-tara puntu ilun bat topatu nuen, handitzerakoan katu beltz baten itxura hartzen zuena.

Gehiago handitu zen gero eta hurbildu egin zen. Su-hiltzailea berehala hurbildu zen niregana, matelezurra dardarka ikusi nion, eta zera galdetu zuen:

— Ikusi al duzu, sendagile horrek?...

Zaldietako bat eskubi aldera bota zen, bestea ezker aldera; une batean su-hiltzaileak nire belaun gainera bota zuen pisu guztia, harridurazko oihu bat egin, zutik jarri berriro, eusteko

leku bat topatu eta uhalei tira egin zien. Dardarizo bat izan nuen gorputzean zehar zenbait alditan. Behin nire onera etorrira, eskua bularrean ipini nuen, pistola baztertu, bigarren kargadorea ahaztu izana madarikatzen nuelarik. Baina azken finean ez banuen bertan gaua pasa nahi, zergatik ez nuen ekarri suziririk? Egunkarian, guri, niri eta zoritxarreko su-hiltzaile horri, zego-kigun txosten bat ikusi nuen pentsamenduetan.

Katua handitu egin zen, txakur bihurtuz eta elur-leratik ez oso urrun ibili zen inguruan. Jiratura, gure atzean hurbil samar lau hanketako beste piztia bat ikusi nuen. Zin egin dezaket belarri zorrotzak zituela eta elur-leraren atzetik errez mugi zitekeela, solairu baten gainean bezalaxe. Haren lasterketan bazen mehatxati eta ozarra zen gauzarik. Zakur-talde bakar bat ala bi? pentsatu nuen, eta «zakur-talde» hitza irakiten zegoen ur zurrusta bat larru gainean botea iruditu zitzaidan, hanketako behatzetatik joan egin zitzaidan jela.

— Helduiozu zerbaiti eta eutsi zaldiei, tirako dut nik, esan nuen nik ohizkoa ez nuen ahots batez, ezezagun batena baizik.

Lerazainak, erantzun bezala harridurazko hots bat egin eta burua sorbalden artean sartzearekin aski izan zuen. Nire begien aurrean distiratu zuen zerbaitek eta hots egiten zuen inor gorra uzteko moduan. Bigarren aldiz gero eta hirugarrenez ere. Ez naiz gogoratzen zenbat denboratan egon ahal izan nintzen elur-lera barruan botea hala. Zaldien bufada sarkor eta sakona entzun nuen, nire errebolberra estutu nuen, zerbaiten kontra jotzen nuen buruarekin, barrutik altxatzen ahalegintzen nintzen beldurra akabatzen, bilutsik zegoen gorputz bat sentituko nuela bular gainean iruditzen zitzaidan. Hestek pentsamenduan deseginak ikusten nituen...

Orduan zera esaten hasi zen lerazaina oihuka:

— Ene, ene... ene... hara hor... hara hor... Jauna... Zoaz, zoaz...

Ardi-larru pisu honen muturrera iritsi nintzen, eta besoak libre neuzkala altxa nintzen. Ez atzean, ez alboetan ez zegoen animala beltzik.

Elur-malutatxo dexente erortzen ziren, eta estalki fin horretan ñir-ñir egiten zuen begirik zoragarrienak, milen artean ere ezagutuko nuen

begiak, une hartantxe ere ezagutzen nuena, zerak: nire ospitaleko farolak. Ore ilun bat altxatzen zen haren atzean. «Jauregi bat baino nahiko ederragoa» pentsatu nuen eta, halako batean estasiak hartuta bitan gehiago bota nuen errebolberrarekin su-hiltzailea atze aldera, otsoak desagertu ziren leku hartara.

Su-hiltzailea, medikuaren etxe harrigarriaren bi pisuak elkartzen zituen eskaileraren erdian zegoen, ni eskailera horren gainean, eta Aksinia, behean ardi larruz jantzita.

— Urrea ematen baldin badidate ere, hasi zen gurtzaina esaka, ez dut egingo...

Ez zuen esaldia bukatu, gesaldutako alkohola edan zuen zurrutada bakar batez, marmar egin zuen zarataz, Aksinia aldera jiratu eta zera erantsi zuen bere gorpuzkerak ematen zion adina besoak zabalduz: «Hau bezain handia...»

— Hilda al dago? Ez al dute salbatu: «Hau bezain handia...»

— Halaxe da bai, hilda dago, erantzun nuen indiferentziaz.

Ordu laurden bat beranduago isilik zegoen dena. Behean, argia piztuta zegoen. Ni goian

geratzen nintzen bakarrik. Barre dardarti batek hartu ninduen, ez dakit nik zergatik: askatu egin nuen alkandora, berriz ere lotu gero, liburuen apalera hurbildu nintzen, kirurgiazko ale bat hartu nuen kaskezurraren hasierako hausturei buruzko zer edo zer begiratzeko asmoz, eta berriz ere utzi egin nuen liburua.

Behin arropa kenduta, mantaren azpian murgildu nintzenean, hozkirri bat izan nuen une batez, desagertu egin zen gero eta berotasuna sumatu muen gorputz guztian zehar.

— Urrea ematen badidate ere, esan nuen nik marmarka erdi lotan, ez naiz sekulan gehiago joango...

«Joan egingo zara... bai, joan egingo zara...», egin zuen ziztu ekaitzak trufati. Trumoi-hotsa eginez teilatuan zehar pasa, tximiniatik barrena kantatu gero, ihes egin, zart egin leihoaren atzean eta desagertu egin zen.

«Joan egingo zara... joan egin-go-zara...» erri-matzen zuen dindilikariak gero eta urrutiago, gero eta urrutiago...

Eta besterik ez. Isiltasuna. Loa.